



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Igandea
2010-10-31**

VIII. URTEA 2.114. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

'Hitza' eta 'Berria' egunkariei babesa agertu diete eragile eta irakurleek

TOLOSA Gaztelako atearen inguruan elkartu dira udal ordezkari eta herritarrak, babes argazkia ateratzeko

PROIEKTUA Aro berria azaroaren 5ean hasiko da; aurkezpen ekitaldia ostegunean egingo dute Andoainen 7



Familia argazkia atera genuen atzo Tolosako Trianguloa plazan dagoen Gaztelako atean. A. IMAZ



Jendetza gerturatu zen Trianguloara, postuak ikusteko ere arazoak sortuz. A. I.



Ameriketako Estatu Batuetako Salt Lake Choral Artists Chamber Choir atzo Leidorren. A. IMAZ

EUSKAL ORDEZKARIEN TXANDA IRITSI DA

TOLOSA Etxeko eta Ordiziako ahotsek osatu duten abesbatzarekin batera, Gasteizko Crescendo abesbatza ere gaur taularatuko da 6

Tolosa Goxua arrakastatsua suertatu da

TOLOSA Bizkotxo Lehiaketan lehen saria Marilo Urbistondo tolosarrak irabazi du 4

lorekolore
LUR ZERBITZUAK

LORATEGIA ETA BARATZERAKO BEHAR DUZUN **GUZTIA**

SANTU GUZTIEN EGUNERAKO ZENTROAK ENKARGUZ
(Landerrenak bain ere moztuenak. Auzara zabalek)

MEGU GARAIKO LORAK SALGAJ

Aitune poligonoa, 4-G. OLABERRIA 943 88 30 53

Larunbateroko azoka eta Azoka Berezia

Tolosa » Badirudi zubi honetan jendea ez dela irten; kanpotik berriz jende ugari etorri zen azoka azoka berezira.

PABLO ALBERDI

Azoka azoka eguna berezia izan zen. Tolosa Goxua azoka ere ospatzen baitzen Trianguloan, eta horrek bisitari asko erakarri zituen. Dirudenez, jende gutxi atera da zubi honetan kanpora, eta ez ziren gutxi izan kanpotik Tolosara etorri zirenek.

Trianguloa plazan denetarikoa postreak ikusi genituen, baita hantxe bertan egindakoak ere, eta gutzian artean erosle asko. Zerkausian ere giroa ez zen batere makala izan. Neguko barazkiak nagusi izan ziren. Fruta zerrenda ere zabal izan zen, eta perretxiko kopurua, nahiz eta joan den astekoaren parekoa ez izan, oparoa izan zen.

Berdura plazan baratzerako barazki asko izan zen, gehien bat udaberriari begira; eta hauekin batera, apaingarrietarako landareak ere bertan aurki zitezkeen.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA Merk. Gares.

Landareak

Ziklamena	5,50	-
Ziklamen minia	3,00	-
Menta	1,50	6,00
Albaka	1,50	6,00
Zainzuria	2,80	-
Salbia	1,00	1,20
Berbenoa	3,00	-
Zilantroa	1,50	-

BERTAKO PRODUKTUAK

Perretxikoak

Ziza horiak	18,00	-
Kuletroa	35,00	-
Mendiko angula	20,00	-
Nikaloa	20,00	-
Tronpeta de la muerto	20,00	-
Onddoak	20,00	-

Fruta

Kiwia	3,50	-
Errezil sagarra	2,00	4,00
Urria	2,00	3,00
Intxaurra	2,50	4,00
Udarea	1,00	-

Barazkiak (sorta)

Ziazerba	1,00	-
----------	------	---

Erremolatxa	1,50	2,00
Tipula	0,80	1,00
Azenarioa	1,20	5,00
Espinaka	2,00	-
Porrua	1,50	3,00

Barazkiak (Kiloa)

Tipula berria	1,50	-
Babarrun zuria	8,00	-
Tomatea	3,25	4,00

Porruak	1,00	4,00
Tolosako babarruna	10,00	12,00
Babarruna Lekan	10,00	12,00
Patata berria	1,50	2,00

Barazkiak (unitatea)

Eskarola lisoa	1,00	1,50
Eskarola kizkurtua	1,00	1,50
Azalorea	1,00	1,25
Letxuk	0,50	0,80

PRODUKTU EKOLOGIKOAK

Fruta

Sagarra	2,00	3,00
Intxaurra	4,00	6,00

Barazkiak (Kiloa)

Kalabaza	1,60	3,04
Baratzuria	1,60	6,00
Azenarioa	2,00	2,50
Dilistak	2,40	-



'Unibertsoko masterra'



» Uzturretik

Iraitz Lizarraga

Matrikulazio garaia dagoeneko itxia egongo da, baina la-

nik gabe egonez gero, ikasteko milioika aukera dituzuela jakinarazi nahi dizuet. Maila ertaineko graduak, goi zikloak, moduluak, graduondoko ikasketak, masterrak... ikasketa aukera zabala etorkizunean lanpostu ezin hobea topatu ahal izateko!!! Hala balitz!

Ez nago, inolaz ere, ikasketa aukera zabaltzearen aurka; pertsona bakoitzaren gogo eta gustuetara egokitzen diren ikasketak eskainiz... izenez behintzat; gero ordea, behin baruan zaudela, betiko ber-

bera izenez aldatua dela konturatzaren zerean dator lehenengo disgustoa... beno, lehenengo ez, aurretik matrikula ordaintzeko bankuari hipoteka eskatu behar izan diozunean ere ez baituzu oso ondo pasa!

Hezkuntza «publikoaren» nozioa aspaldian galdua dugula deritot; gaur egun hezkuntza ez dago inolaz ere edonoren eskuetan... norik ordaindu dezake 6000 euroko master bat? Horrexegatik diot *Unibertsoko masterra*, orbitaz

kanpo geratzen diren prezioak dituztelako!! Eta okerrena... jada irakasleak ere ez dira beharrezko, on-line egiten baitira ikasketa asko; negozio borobila: giza errekurtsioak murriztu, matrikula tasak igo... eta gainera, ikasleak pozik, bukatzean geure bizitzako lanpostua topatuko dugulako!

Ikasle eternoak izatera kondenaturik omen gaude! Garai batean, ikasle bizitza sekulako txoiloa omen zen, baina ez dut uste oraingo kasua denik. Egoera konplexua da: ikastera beharturik gaude lanpostu bat lortu nahi badugu, baina ikasketen prezioa gero eta altuagoa da, beraz, lan kaxkarren bat

onartu beharra dugu, geure etorkizunerako «inbertsioa» egin ahal izateko... Okerrena da, lan kaxkar hau, beste lan kaxkarrago batek ordezkatzeko duela ikasketak amaitzean, eta beste bat, eta beste bat... honelaxe, lanpostu kutre batetik, exkasago batera... hauxe daikasten sartutako orduen eta diruen ordaina!!

Panorama honen aurrean irudimena besterik ez zaigu geratzen; geure bizitza ahalik eta modu onean antolatuta ahal izateko eta duintasan pixka batekin bizi ahal izateko. Kantitate izugarriak ordainduz soilik ez daikasten, bizitza omen da eskolarik onena...

U Urteurrenak

II. urteurrena
JOXAN ZABALA OTEGI

Oso trebea zifan eta azkarra. Inguruaz zaintzen beti zure indarra.

Orain Mutxategiri dario negarra. Ezifaren-ezifnez etsi beharra.

BETIZUREKIN ZURE FAMILIA

ERREZIL-TOLOSA
2010eko urriaren 31

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan **DOAN** agertuko da

hilberriak urteurrenak eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

FUNERARIA VASCONGADA

902 402 900

G Gutunak

Irailaren 29ko Greba Orokorren eta sindikatuen erabakiaren harira

Irailak 29ko Greba Orokorren sindikatu abertzaleek ez parte hartu izanak eragile batzuegan zeresana izan du.

Sindikatu abertzaleen erabakia, askorentzat ona izan da eta beste askorentzat berriz ez, baina gauzak ez dira horren sinpleak.

Hamaika arrazoi egon daitezke, bai jarraera bat zein besteak justifikatu ditzakeenak, baina horrelako erabaki baten aurrean begiratu behar dena, ez da erabakia ona den ala ez, hartutako erabakia daramaten estrategiarekin koherentea den ala ez baizik.

Ikuspuntu nazional batetik, sindikatu abertzaleek, estatu mailan eginiko deialdiarekin bat egin ez izanak bere logika du.

Sindikatu hauek, lan esparru eta erabakigune gisa Euskal Herria harturik, horrekin koherentea den estrategia nazional bat daramate aurrera, Euskal Herrian daude antolatuak eta Euskal Herrian borrokatzen dute euskal langileen defentsan. Eta beraz, normala da erabakigune gisa Estatu harturik, ikuspuntu eta estrategia estatuala duten sindikatu eta langile antolakundeek beraien estrategia eta borroka baldintzatu nahi izaten ez uztea.

Hala ere, azal dutako ikuspuntuak bere garrantzia izanik, ez luke arrazoi nahikoa izan behar irailaren 29ko greba orokorra bezalako borroka egun batekin bat ez egiteko. Zeren egia izanik Euskal Herriak eta espainiar Estatuak herri ezberdinak osatzen ditugula, egia da ere, Euskal Herria Espainiaren menpe dela eta ondorioz, Espainiako estatuak langileen aurka hartzen dituen erreforma laborala eta pensioena bezalako neurriak modu berean eragiten ditugula Estatuko estatuak langileen aurka hartzen dituen erreforma laborala eta pensioena bezalako neurriak modu berean eragiten ditugula Estatuok barne.

Beraz, bi estrategia nazional ezberdin izateak ez luke momentu konkretu batean eta egoera konkretu bati aurre egiteko unean oztopo bat izan behar.

Azken finean, langileok gure eskubideen defentsan kapitalaren aurka daramagun borroka, borroka internazionala da, munduko herrialde gehienetan eramatzen dena, eta beraz, euskalduna, espainiarra, kataluniarra, alemana, portugesa, grekoa edo dena delakoa izateak ez luke oztopo izan behar amankomun izan ditzakegun arazoetan, erreforma laborala kasu, taktikoki modu bateratuan erantzuteko.

Baina hemen dago koska, ez dira soilik estrategia nazional ezberdinak sindikatu abertzaleak alde batetik, eta CCOO eta UGT bestetik banatzen dituztenak. Lehenak, izan beharko luketen izaera borro-

kalariai jarraiki, ñabardurak ñabardura, ikaragarriko lanak egiten ari dira, patronala eta gobernuaren neurriei koherentziaz aurre egiten eta langilea antolatzen eta borrokatzeko esparruak eskainiz, horren adibide direlarik besteak beste metalgintza eta arte grafikoetako grebak, 2 greba orokorrak eta gainontzeko sektoreetan aurrera eramaten diren borrokek. UGT eta CCOO jokatzeko ari diren papera berriz, aurkakoa da. Gobernuak antolatutako «Dialogo Social» mahietan parte hartuz, patronalarekin eta gobernuarekin batera, langileen aurkako neurri ezberdinei babesa emanaz eta langileen eskubideak murrizten dituzten itunak sinatuz, Toledoko Ituna...

Sindikatu abertzaleak lan konbenio duin baten alde Euskal Herri osoan borrokan ari direnean, Gipuzkoako metalaren kasu, UGT eta CCOO Madrilgo gobernuarekin lan hitzarmena orokortu eta orduz geroztik aurrera Madriden negoziazioa adosten ari dira, horrek euskal langileoi lan hitzarmen duin baten aldeko defentsan jartzeko oztupoekin.

Greba orokorra, langile klaseak bere kontrako neurriei aurre egiteko eta bere eskubideen defentsan patronala... presionatzeko daukan borroka tresna garrantzitsuenetakoa izanda ere, koste handia suposatzen digu langileoi; beraz ezin da izan nolabait erabiltzen den borroka molde bat, helburu batzuk lortzeari begira estrategia baten barruan txertatzen den moldea izan behar du.

Kontua ez da konbokatoria soil bat konpartitzea. Greba orokorbatekin, gainontzeko borroka moldeekin batera, helburu batzuk lortu nahi dira eta argi dago sindikatu ezberdinek orain arte izan duten ibilbidea ikusita, oso zaila dela helburuetan koinziditzea.

Comisiones Obrerases eta Union General de Trabajadores sindikatuek greba orokorra deitu zutenean, ez zuten deitu patronalari eta gobernuari aurre egiteko intentzioarekin, Espainiako Lan Ministro berriak, korbata etaguzti, greban parte hartu izanak erakusten duen bezala; grebara deitu bazuten egoerak beharturik izan zen, Estatuko langileen eta afiliatuen aurrean aurpegia zuritu eta hauei esker mantentzen dituzten botere kuotak mantentzeko.

LAB, ELA eta gainontzeko sindikatu abertzaleek, langile batasunaren izenean joko horretan sartu behar al zuten?

Bakoitzak ikusi eta pentsa dezala nahi duena, baina langile batasuna ez da borroka moldeetan ematen, estrategian eta helburuetan baizik, eta gero hortik islatuko da islatu behar duen tokian.

Aritz Lopez Ugarte (Tolosa).

Madridgo (Espainia) Soto del Real espetxetik.



Puzgarrietan saltoka, gaztetxoak

OREA ● Kultur Hamabostaldian erabat murgilduta daude orexarrik. Atzo arratsaldean haurrak izan ziren protagonista. Saltoka, gora eta behera ibili ziren pilotalekuan jarritako puzgarrietan. Gaur berriz, mendi irteera egingo dute, Uitzitik Orexara. 09:00etan autobusez irteera dira hara, eta gero, oinez itzuli. Indarrak berreskuratzeko bazkaria egingo dute. € €



Kontalariaren kamioia gurean izan da

TOLOSA ● Kontalariaren kamioiak eskualdeko hiriburuan egin zuen atzo geldialdia. Eusko Jaurilaritzak ipuin kolektiboa, elkarreraginezkoa eta ikus-entzunezkoa osatzea du helburumartxan jarritako ekimen honekin. Bilbotik urriaren 29an abiatutako kamioiak hainbat herri bisitatu ditu hemendik aurrera. Tolosako egonaldiaren ostean Goierriko bidea hartu du, Beasainen baitu hitzordua. Karlos Linazasoro idazleak ere bat egin nahi izan zuen egitasmoarekin, eta ipuinari jarraipena ematen laguntzekoa zen. A. IMAZ

Berrito lortu du sari nagusia Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestrak

Tolosa » Pragan jokatzeko den European Festival of Acordion Orchestras lehiaketan lortu du saria orkestra tolosarrak.

ERREDAKZIOA

Orain hiru urte lortutako balentria berretsi dute Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestrako musikariek. Pragan jokatzeko den European

Festival of Acordion Orchestras lehiaketan berrito irabazi dute sari nagusia. Isitxo Larrañaga zuzendariak, Pragara joan aurretik, zaila ikusten zuen berrito irabaztea, baina asmo horrekin joan ziren eta baita eskuratu ere.

Atzo arratsaldean jakin zuen sariaren berri orkestra tolosarrak, goizean lehiaketako saioa egin ondoren. Guztira 14 orkestrak parte hartu dute, besteak beste, Suitza. Alemania edota Txekiar Errepu-

blikakoak. 26 musikariek osatu du Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestrak taldea lehiaketan parte hartzeko. 30 urteko historia du orkestra tolosarrak. Hain justu, kilometroak jaia herrian ospatu zenean egin zuten emanaldiaren ondorioz sortu zen.


Iragarki laburrak

LANA

■ **Bigi garbitasunak.** Alfonbrak, etxeak, bulegoak... garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe 638 94 46 04 (Gurutze) edo 695 70 82 71 (Belen) telefonora.

■ **Haur zaintzailea.** Etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko, emakumea behar da. Interesatuak deitu 600 86 95 04 telefono zenbakira.

■ **Etxeko lanak.** Etxeko lanak egin edota umeak zaintzeko, esperientziadun emakumea lanerako eskaintzen da. Interesatuak, deitu 659 07 75 91 zenbakira. Jone.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Gozozaleen gozatua

Ekonomia » Jendetza izan zen atzo Tolosa Goxua azokan eta bertan egindako Bizkotxo Lehiaketan Marilo Urbistondo tolosarrak irabazi zuen.

IMANOL GARCIA

Tolosako Trianguloa plazan gozozaleek sudurrak zabal-zabalik izan zituzten atzo. Eta begiak ere handi-handi. Tolosa Goxua azoka arrakastatsuak jendetza erakarri zuen eta hainbat postutan usaindu, ikusi eta erosi ahal izan zituzten txokolateak, erroskilak, pastelak, turroiak... Hainbestekoa zen jendetza, postuen arteko pasilloa estuegi geratzen zela bertatik pasatzeko.

Azokaren baitan Bizkotxo Lehiaketa egin zuten. 23 bizkotxo aurkeztu ziren lehiaketara eta lehenengo saria Marilo Urbistondo tolosarrak eskuratu zuen eta bigarrrena Bidatz Sasiain tolosarrak. Yogurrak, arrautzak, azukrea, irina, limoi-birindura eta olioak erabili zuten Urbistondok bere bizkotxo egiteko. «Hainbeste egin ditut, niretzako erraza dela», dio. «Labea oso garrantzitsua da bizkotxo egiterakoan. Ondo-ondo berotu behar da eta gero jaitsi egin behar da 160 edo 150 gradutako

tenperaturara. Hori da sekretua: pixkanaka egiten joan dadila». Etxean asko gustatzen zaie saria irabazi duen bizkotxo. «Nire ilobak oso gustura daude, urtebete-tzea dutenean eta bizkotxo eskolara eramaten dutenean, gelakide guztiak zain izaten dituzte».

Errusiar kantariak eta pastela

Tolosako gozogileek bat egin zuten errusiar pastel erraldoia egiteko. Gorrotxategi, Gozona, Ezeiza, Gorosti eta Saizar gozotegikoek osatu zuten. Saizar gozotegiko Nieves Soroak azaldu zuenez, «pixkanaka prestatzen joan gara. Merengea azukrearekin nahastu eta hori txigortu egin behar zen. Horretarako gau guztian utzi beharra zegoen, labea itzalita, egin zedin».

Bizkotxoak, krema gurinarekin eta errusiar pastela erabiliz egin zuten oinarria. Gero gaineratik trufa eta esne-gaina bota zieten eta horren gaineratik berriz pastel errusiarra. Gozogle bakoitzak bere zatia



Trianguloako postuek lan handia izan zuten atzokoan. I. GARCIA

egin ondoren Trianguloan elkartu zituzten. «Horrelako pastel erraldoiek ikusmin handia sortzen dute», zioen Soroak, hesiaren atzetan zegoen jendetza ikusita.

Tolosa Goxuak pastel erraldoiaren bidez bat egin zuen Abesbatza Lehiaketarekin. Abesbatza erru-

sierrek Lehiaketan presentzia handia izan ohi dute eta hauen omenez egin zuten pastela. Jendetza artean pastelaren zatiak banatzen hasi aurretik, Anima Vocal Ensemble talde errusiarren abeslariak pare bat kantatu abestu zituzten. Pastela dastatzeaz gain,

zatiak banatzen ere lagundu zuten.

Bere aldetik, txurroak ere banatu zituzten Tolosako txurrieriak, 2015 txurro, hain justu. Bezero batzuk ez zekiten doan jasoko zituztela eta harriritu hartzen zituzten txurro gozoak.



23 bizkotxo aurkeztu ziren lehiaketara. I. GARCIA



Bidatz Sasiain eta Marilo Urbistondo, Bizkotxo Lehiaketako bigarren eta lehen saridunak. I. GARCIA



Anima Vocal Ensemble taldeko abeslariak pastel errusiarren banaketa girotu zuten. Gozogileek ehunka zati banatu zituzten jendearen artean. I. GARCIA



MENDIKO LARREAK PASTOS DE MONTAÑA

Artzaintza: funtsezko lanbidea Abeltzaintzako jardunbide egokiak Aralarren eta Aizkorri-Aratzen

Artzainarena euskaldunon irudi adierazgarrienetako bat da. Milaka urteko historiaren protagonista da, naturarekiko dugun lotura, mitoak eta kondairak gordetzen dituen, desagertzeaz dauden kultura-balioen irandaria... Artzainak eta abeltzainak dira iraganaren osagai nagusiak, baina baita orain zain etorkizuna ere.

Historiaurretik hona, artzaintzak garrantzia handia izan du lurraldeen bilakaeran eta antolaketan. Neolitikoko garaiko lehen etxekotzaileen ondorengo zuzenak dira, gaur egun, Aralar eta Aizkorri-Aratz mendietako larreetan jardura horretan profesionalki dabilen familiak. Modernitate eta bizitzeko modu berrietara egokitutako jardura bada ere, mendiko larre andana mantentzen laguntzen du, berekin dakartzan onura ekologiko eta soziokulturalekin.

Izan ere, abeltzain-familiak aurrera eramaten duten lana da mendiko larreak kultura-gordailu eta agente ekologiko ordezkaezin gisa mantentzea bermatzen duen bakarra. Balio estrategiko horren kontzientzia da beharrezkoa egiten duena artzaintzari babes soziala eta instituzionala ematea.

Badu etorkizunik artzaintzak?

Geldera horren erantzunak baieztoko behar du izan. Azken urteetan, artzaintzak bere horretan jarraitzen du; urritu behintzet ez da egin. Mendiko abeltzaintza sustatzeko eta gazta merkaturatzeko laguntzei esker, artzainek eutsi egiten diote araldeari eta artzain-lanari.

Baina, agian, berri onena da lanbidearen gizarte-aitortza indartuz doala eta, gainera, estamentu guztietan oihartzu doazela mendiko artzaintza ereduak jardunbidea dela baliabide naturalak aprobetxatzeko. Eredu erabat jasangarria da; animalia-baliabideak eta landare-baliabideak aprobetxatzea ahalbidetzen du giza faktoreak eragindako distortsioak gabe.

Horrekin batera, Europako hainbat herrialdetan programa publikoak egiten ari dira bai ingurumenaren arloan, bai nekazaritza eta abeltzaintza sektoreetan, berezko sistema horiek babesteko, kontaezinezko balioa duten talde-ondaretzat jotzen baitira.

XXI. mendeko artzaintza

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Ikaskuntzak, Asmoz Fundazioaren bidez, proiektu berritzaileak garatu dute azken bi urteetan, gaur egungo errealitatea eta sektorearen etorkizuneko aukerak ezagutzeko: Aralar eta Aizkorri-Aratz Parke Naturaleko larreak zaintzeko eta hobetzeko abeltzaintzako jardunbide egokiak. Beste ekintzen artean, 162 profesional elikarritzetatu dira jardunbideak, irizkiak eta beharrak

Aralar eta Aizkorri-Aratz Parke Naturaleko abeltzaintzako jardunbide egokiak

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Ikaskuntzak garatutako proiektuaren barnean aurrera eramandako ekintza batzuk:

- Balioa, egoera eta jardunbideak zehazteko **8 ikerketa** zintzuk, kudeaketa partehartzen duten agente guztiekin lankidetzan, artzaintzako jardunbide egokiei buruzko arauak sortzeko abiapuntu izango diren.
- Aralar eta Aizkorri-Aratz Natura Parkeetan lanean dabilen profesionalak, beren jardunbideak eta beharrak ezagutzeko **elkarrizketak**.
- Artzainei eta abeltzainei eta ingurumen-sektoreko langileei zuzendutako larreak kudeatzeko estrategia egokiei eta IKT berriei buruzko **heziketa**.
- Sentsibilizatzeko **materialak eta edukiak** eta berariazko webgunearen sorketa.
- Larreak zaintzearen eta hobetzearen eta abeltzaintza tradizionala mantentzearen garrantzia **gizartearazteak**. Proiektua eta bere bilakaera zabalteko kanpaina, eskuratutako emaitzak batera.

www.mendikolarreak.net



ezagutzeko. Horietatik hainbat ondorio orokor ateratu dira eta, era berean, XXI. mende hasieran sektoreak duen erradiografia eskaintzen dute.

- Enirio-Aralar Mankomunitateko artzainak eta abeltzainak batez besteko adina 52 urtekoa da; eta 54 urtekoa, Gipuzkoako eta Arabako Partzuergo Orokorrean.

- Enirio-Aralar Mankomunitateari dagokionean Amezketak eta Zaldibia udalerrietan daude gehienak; Partzuergoko kasuan, aldiz, Zegama eta Zerain udalerrietan.

- Artzaintza eta abeltzaintza jardura oso gogorak dira. Horretan dihardutenek bokazioa behar dela uste dute bizimodu horretan aurrera egiteko.

- Ofizioa belaunaldiz belaunaldi transmititzea garrantzitsua da. Ohikoa da familiakoek egin beharreko lanetan laguntzea.

- % 53k ondorengoek ofizioarekin jarraitzea nahi dute. Baina, % 30ek nahi bera izan arren, gaur egun sektoreak duen egoera ikusita, nahiago dute beste lanbide batzuetara jotzen badute.

- Itxaropentsua da, ordea, lanbidea inguratzen diren pertsonak ugaritzen ari direla ikustea eta, beraz, azken urteetako beharrezko joera agurtzen dela.

- Lanbidearekin gustura daude. Askolaguntzen die artzainei eta abeltzainei

gizartearengandik bere lanarekiko nabaritzen duten estimua.

- Alabaina, nahiko zabaldua dagoen iritzi batez ere kezaketen dira: diru-laguntzetatik bizi direla, alegia. Baina gizarteak ez duela beren ekarpena ikusten edo beren ekolozpenak prezioetatik soilik epaitzen direla ere salatzen dute.

- Sektoreko kideen arteko harremana, oro har, ona da.

- Sektore nahiko profesionalizatua da; askok jardura horretatik soilik bizi direla adierazten dute. Irabazi gehiena haragi ekolozpenatik lortzen dute; atzetik datoz esnearen eta gaztaren salmenta.

- Lau elikarritzetatutik batek dio etengabe mendian egoten dela araldearen alloan. Gainontzekeetatik, erdiak sarritan bisitatzen du astean zehar.

- Sektoreko arazo nagusiak ekonomikoak dira eta, Aralar Mankomunitatearen kasuan, baita bideak hobetzeko beharra ere.

- Bitartekariaren irudia lehiakortasunarentzako oztopo gisa ikusten da. Sektoreak berak merkaturatu behar du lituzke produktuak.

- Profesional gehienek uste dute larreen jasangarritasunari arreta eskaintzea lan garrantzitsua dela ikuspegi kulturetik, baita ingurumenaren ikuspegitik ere.



Argazkia: Gernimo Aragoitia

«Europa iparreko sistemetan oinarritzen gara, hor, maila goreneko abesbatza eskolak dituzte»

INMA KARRERA > Crescendo abesbatzako zuzendaria

Abesbatza Lehiaketa

Gaur 11:00etan Leidorren izango da haurren saioa, eta bertan entzun ahal izango da Crescendo.

ESTI EZEIZA

42. Abesbatza Lehiaketan parte hartuko duen bigarren abesbatza euskalduna da, Gasteizko Crescendo. Musika garaikidean berezita dago. Garaikidea, abangoardia ikuspegitik, nahiz gaurkotasunetik. Horren adibide da beraien programa, Ertzainak taldearen abesti batetik, antzinako erriro batzuetara salto egingo baitute. Tartean musika garaikide erlijioso ere taularatuaz. 40 neskez osatutako talde honen zuzendaria da, Inma Arroyo.

Nola sortu da Tolosako Lehiaketan parte hartzeko aukera?

Normalean, antolakuntza da parte hartuko duten abesbatzak gonbidatu dituen. Hala, guk beste bitan ere hartu dugu parte Tolosako lehiaketan, eta badakite zein den gure maila, eta nola lan egiten dugun. Horregatik, Tolosako Ekinbide Etxekoek, Txapelketaren maila

altua ziurtatuko dieten abesbatzak aukeratu dituzte.

Gonbidapena, ongi pentsatuta onartu beharrekoa da ezta?

Parte hartu edo ez, erabakitzerako garaian, faktore asko hartu behar dira kontuan. Izan ere, gazteen abesbatzetan, hauek, etengabe heltzen joaten dira, eta taldea utzi egin behar izaten dute. Ez da helduen abesbatza bat bezain egonkorra. Kalkulo asko egin behar dira.

Crescendo, abesbatza batetik haratako proiektu bat da.

Crescendok denera 530 abeslari ditu bere baitan. Hau, Iparreko eta Europa Ekialdeko herrialdeetako ereduari dago oinarritua. Estatu horietan, abesbatza eskolak dituzte eta oso oso gaztetatik hasten dira abesten, honela, 13 urtetara iristen direnerako abeslari oso onak dira.

Hemen horrelako zerbait egin beharra zegoela ikusi genuen, baina aldi berean, bagenekien, baldintzak ez zirela berdinak. Horregatik, pixkanaka sortzen joan gara. **Euskal Herrian aitzindari zarete.**

Alde horretatik bai, aitzindariak izan gara, eta lehendabizikoak, bide hori jarraitzen. Azken batean, Europa iparraldeko sistemari oinarritzen gara, non, maila goreneko abesbatza eskolak dituzten, eta horretan bakarrik aritzen diren profesionalak dituzten irakasle gisa. Hala, ahotsaren bitartez, musikaren inguruko heziketa oso landua jasotzen dute. Gu duela 24 urte hasi ginen lanean, baina orain dela hamar hartu genuen bide hori. Zortzi ikastolatan ari gara lanean, eta bakoitzean maila ezberdinak daude. Orotara 25 talde dira. Proiektuan parte hartu nahi duten zentroekin jartzten gara harrema-



40 neskez osatzen dute Gasteizko Crescendo abesbatza. HITZA

netan, eta bakoitzak bere abesbatza izaten du. Baina, hamaika urterekin, hiru ahotsetako abesbatzetan amaitzen dutenean, Crescendo taldera igarotzeko aukera lutzaten zaie. Irakasleen taldea ere berezita da, eta izugarriko egitura dago osatua Crescendoren baitan.

Abesbatzen etorkizuna eta kalitate bermatzeko hori da bidea.

Horren aldeko apustua egin duten lehendabizikoak gara. Abesbatza euskaldunak beti izan baititugu, baina horren maila gorenera iristen direnak ez. Hori dela eta, hauen eredu jarraitzea erabaki dugu. Taldea zuzentzen dutenek ezin dute hau hobby bezala hartu, dedikazio oso eskaini behar diote, kalitate lortzeko. Ordu asko sartu behar dira, abesbatza on bat lortzeko.

Ipar Europako abesbatzen eta hermenen arteko diferentzia, haurretan edo helduetan da handiagoa?

Ikusten ari garena da, txikitatik hasten denean, eta heziketa hori ematean, haurrak berak, instrumentu direla, eta ez etorkizuneko abeslari. Haurren abesbatza hauek entzunez gero, ohartzen zara, gazteak izan arren, izugarriko maila dutela, helduen talde askok baino handiagoa. Tolosako Lehiaketan bertan, hau behin baino gehiagotan baieztatuta da. Izan ere, Sari Nagusia haur abesbatzek irabazi izan dute.

Gazteekin lan egitea, helduekin baino zailagoa al da?

Batzuentzat agin bai, baina niretzat ez. Lengoaia berezi bat erabili beharra daukazu, eta hainbat behar dituzte, baina errespetutik eta

kontzentrazioetik egin behar dalan. Askotan diogu, gazteekiko hartumana zaila dela baina, oso ongi lan egiten dute. Bestalde, oso konprometitak dira. Egia da hala ere, lehen aipatu bezala, abesbatzako kideen artean joan-etorri handia dagoela, adin aldaketagatik, eta etengabe, formazioa ematen ari behar duzula. Baina, erabiltzen dugun sistemak, hau ekiditeko ere balio du.

Gaztetxoekin abesbatzek freskotasuna ere ematen diote lehiaketari.

Musika erlijiosoko obretatik hasi eta polifonia zailenetara arteko kantuak abesteko gaitasuna dute haurrek. Helduen abesbatzetan, dantza egiteko edo mugitzeko proposatzen zaienean, askotan ez dute nahi izaten lotsatu egiten direlako. Gaztetxoek berriz, gustura egiten dituzte horrelakoak. Baina hau ez da kasualitate kontua, heziketa baizik.

Mugimendua sartzeak on egiten al die emanaldiei, edo alderantziz, seriotasuna kentzen die?

Mugimendua soilik, eskatzen duen obrari eman behar zaio. Obra bat, istorio bat kontatzea da, eta istorio horrek aukera ematen badu, onerako da. Baina gehitzeagatik ez dira gehitu behar keinuak, publikoarengana hobeto iristeko baizik. **Crescendo abesbatza nola ikusten duzu?**

Taldea oso ongi prestatua dago. Lan handia dago atzetik egina, eta berria izateko aukera oso ona da. Tolosa abesbatza musiken katedrala da, eta edonorentzat, izugarriko aukera da bertan parte hartzea. Eszenatokia egoteak soilik, handia zarela erakusten du. Emozio berezi bat sentiarazten dizu, eta une berdingabea da.

Hirugarrenak konpromisoa handitzen du, edo lasaitasuna eman?

Hirugarren honen baiezaten duzu, garapen bat eman dela abesbatzan, eta gero eta hobeto gaude. Ikusten duzu, ziurtasuna duzula, ahal duzula, eta onenen artean zaudela.

Eutsi goiari

kunde garaiko musikaren interpretazioa guztiei, kontrako ezta-eritrik sartu zitzaizen.

Batzuk, ulergarria izaki, oso urrunekoa dute Europa, besteek nonbait, ezin gatz piperrik erantsi XVI. mendean idatzitako nota eta testuei. Orokorrean ere maila teknikoki aberatsa izanik, komunikazio aldetik ez zitzaizkidan oso oparok iruditu.

Santa Klara komentuan lehen aireak entzun orduko ordea, atsegin ederra hartu nuen; guztiok ere erosoago sentitu ginelakoan nago. Aretoa ren baldintza akustikoez izugarri baldintza baitezakete musika saioa. Ahots talde benetako bi entzun ditugu: Ertziako Anima eta Ukrainiako Dyyvo.

Lehenak orekatuago aritu ziren

bi emanaldietan eta azpimarratzen G Sviridov-en musika egiteko sotiltasuna.

Bigarrenek berriz, lehen gaueko giroa berotzea lortu zuten. Zerbait esatea lortu zuten erregistro desberdinetan zehar: doinu herriko goxotik, pop ukituko gabon kantara.

Biek hala biek, errusiar giroko literatura interesgarria hurbiltzeko aukera eskaini ziguten. Gainontzeko lau taldeen Komentuko jarria, oparagoa izan zen.

Salt Lake-ko soprano ahots ez-tiek, eragin kortasunean lagundu zioten inspirazio handiz emandakolana.

Delaware Unibertsitateko bigarren AEB-ko koruari buruz azpimarratzeko, saio berean, beren

baldintzetara ongi egokitutako egitaraua.

Suitzarren alde zurrina, oztoporako baldintza gertatu zen. Filipinarren barrutik ere espero zitea esatea lortu zuten erregistro geratu ginen: goraberatsuegi.

Atzo arratsaldeko ekitaldiak, erlojupeko laistereta iradoki zidan. Taldeak entzun ahala erreferentziak finkatu doaz. Ondoren datorrenak, gaurkoan arituko diren burutapenak eginak izan ditzakete jada. Aurrez aurre dituzte Orpej esloveniarrak, ExtrachORD alemaniarrak eta bereziki Mikrokosmos-eko frantziarrak.

Eutsi goiari!



2011
agenda

Dagoeneko salgai!



12€

- Liburu dendetan
- www.euskalherrikoplaza.com

Ezaugarriak:

- Hiru urtetako egutegia
- Intereseko telefonoak
- Euskal Herriko errepide mapa
- Aste osoa ikusgai

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**

» Iritzia

Migel Zeberio
Abesbatza zuzendaria

Mundua sail bakarrean ordezkatu. Balioko luke izenburuak, ahots taldeen esparruak eskainitako aniztasunaren titulu bezela. Ipar Ameriketa, Asia, Eki eta Mendebaldeko Europako ordezkari izan dituguleroz lerrokantuan. Guztiek bat egin zuten, arauak hala behartuta, eta berpiz-



Babes argazkian eragileak eta irakurleak bat eginik

Hedabideak » BERRIA Taldeak azaroaren 5ean, ostiralean, ekingo dio aro berriari. Aurkezpena 4ean egingo dute Andoainen.

ASIER IMAZ

Internetean zein paperean urrats berriak ematera goaz *Berria* eta HITZA. Horretarako, ezinbestekoa da orain arte bidelagun izan gaituzten harpidedunen eta irakurleen atxikimendua.

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA etorkizunari begira jarri zen atzo, eta kalera irten zen babes bila. Deialdiarekin bat eginaz, bi eskualdeetako hamaika eragileren eta irakurleen babes jaso zuen

gure kazetak Tolosako Trianguluan.

Oraindik ordea, lan asko gelditzen da egiteko. Aro berria, aurpegi berria, urrats berriak... gizarteratzen jarraitu behar dugu. Atxiki-pen ofizialak ere biltzen hasiak gara, Tolosaldeko eta Leitzaldeko udal eta eragileekin hitz eginaz. Batzuk jada aztertu dute gaia eta besteek aztertzeko dute oraindik.

Urratsez urrats sortua sendotzen jarraitzeko unea da. Babes argazkian bildu ziren guztiei, eskerrik beroenak. Bide berriaren mugari izateagatik.

Azaroaren 4ean eta 5ean

Euskarazko Komunikazio Taldeko (aurrerantzean BERRIA Taldea) *Berriak* eta *Hitzek*, elkarlanean

eskaintza berritua eta osatua eskainiko dute azaroaren 5etik aurrera.

Paperezko eskaintza indartzeaz gain, 16 orrialdeko GIPUZKOAKO HITZAREKIN, gero eta jende gehiagorengana iristea helburu izanik, bestelako euskarrietara ahalik eta gehien zabaltzeko apustua egingo dugu. Horretarako, Interneten zein paperean urrats berriak emango ditugu.

BERRIA Taldeak jarriko dituen ekimenak aurkezteko, herrialdeko aurkezpen ekitaldiak egingo ditu datorren astean. Gure herrialdeari dagokionez datorren ostegunean egingo dugu aurkezpena, azaroaren 4ean, Andoaingo Martin Ugaldede Kultur Parkean hain zuzen ere, 19:30ean.



Heldu nahiz gazte, biak euskaltzale amorratuak. Norbanakoez ere bere karpenean garrantzitsua egin diote proiektu berri honi. A.I.



Antton Izagirre, Ramon Labaien, Jokin Bildarratz, Onintza Lasa, Iñaki Irazabalbeitia eta Martxelo Otamendi. A. IMAZ



Mikel Baraibar, Aresoko alkatea, familia osoarekin gerturatu zen Tolosara. A. IMAZ

BERRIA egunkariarekin DOAN



Azaroak 5, ostirala,
karpeta eta lehenengo fitxak zure kioskoan
EGUNERO FITXA BAT; 20 ENTREGA.

aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**



15°
12°

GOIZA EURI ARRISK
ARRATS. EURI ARRISK
BEROENA 14°
HOTZENA 12°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agurrak



Zorionak Iraitz!

Iraitz. Bihar urte 1.
Zorionak eta musu handi bat etxekoan partetik.

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak

Mesedez,
ekarri
argazkia
bi egun
lehenago.

agurrak

A Agenda

Deialdiak

- **Tolosa.** Udaltzaingoa jakinarazi duenez azaroaren 4ean eta 5ean ziklotomotorrak aztertze estazio mugikorra Tolosara etorriko da, San Esteban auzoko ferialekura. Txanda hartzeko 943 62 63 00 zenbakira deitu daiteke.
- **Tolosa.** Hilaren 19an Itziar-Zesto mendia ibilaldia eta ondoren barrun jatea antolatatu du Alpino Uzturre mendia elkarteak urtea amaitzeko. Izen-ematea, elkarte-antolatzaile (Gudari 5, 943 652789, alpinozturre@hotmail.com).
- **Tolosa.** Harizpe jubilatua elkarteak irteera antolatatu du Lizarrara azaroaren 24ean, Los Arcoseko abiadura zirkuitua bisitatuz. Izen-ematea, elkarte-antolatzaile.
- **Tolosa.** Olarraingo zikloturista zeharkaldia jokatu da gaur. Izen-ematea, irteeran 08:30etik 9:30era. Irteera 10:00etan. Bizikleta zozketa eta opari ugari.

Erakusketa

- **Tolosa.** Inestable GKO Galleryren produkzioaren erakusketa ikusgai Aranburu Jauregian.
- **Tolosa.** Irudiak erakusketa GKO Galleryn.
- **Tolosa.** Hildakoak hilobietatik atzeraz, duintasunak berreskuratuz erakusketa Kultur Etxean, Aranzadi Zientzia elkartearen eskutik.
- **Tolosa.** Ignacio Elizaranen erakusketa ikusgai Aranburu Jauregian.
- **Tolosa.** Indonesiako Txotxongiloak erakusketa Topic-en.
- **Tolosa.** Ertza erakusketa GKO Galleryn.
- **Tolosa.** Jon Balentziaga eta Enrique Zeberio pertsona gorrek egindako obren erakusketa izango da ikusgai Fronton kafetegian.
- **Tolosa eta Alegia.** Lore lehorrekin egindako lanak ikusgai Tolosako Lanbroan eta Alegiako Jubilatuen tabernan.

Musika

- **Tolosa.** MR. Protector (Frantzia) eta Sacco taldeen emanaldia Bonberenean 22:30ean.

42. Abesbatza Lehiaketa

- **Tolosa.** 11:00etan lehendabiziko saioa Leidor Antzokian (Haur Abesbatzak): Crescendo-Euskadi, Cantemus-Hungaria, Leon de Oro-Asturias, La Unio-Katalunia eta Liepaites-Lituanian; 16:00etan bigarren emanaldia Leidor Antzokian (Polifonia saileko abesbatzak): Hamoru kobe-Japonia, Pittea-Suedia, Oroith-Hodeiertz-Euskadi eta Salt Lake-AEB; Azken saioa 19:00etan, Leidor Antzokian (Folklore sailean ariko dira talde berdinak); 22:00etan Udalaren eskutik Herrera Ofiziala eta 23:00etatik 02:00etara bitartean Beotibar Pilotalekuan Abesbatza Dantzaldia. Epaimahaiaren erabakia jakitera emango delarik.

Jaiak

- **Tolosa.** Jesusen Zerbitzarietan ibilitakoen bazkaria izango da gaur. Honen aurretik Meza ospatuko dute bertan 13:00etik aurrera.

Zinema

- **Villabona.** Wall Street filma ikusgai izango da gaur 19:30ean, Gurea antzokian. Bihar berriz 21:30ean.
- **Tolosa.** Campanilla. Haurrentzako filma ikusgai 17:00etan Leidorren.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Cecilia Bronte, Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Sokatira txapelketa jokoan

LEITZA Nafarroako Goma Gaine-ko Sokatira Txapelketari ekin zioten atzo Leitzako Amazabal pilotalekuan, eguraldiak ez baitzuen ziurtasun handirik ematen lehia herriko plazan jokatzeko. Lau talde aritu ziren bertan, 630 kiloko mailan: Amaiur, Berriozar, Txantrea eta Basaburua-Imotz. Tiraketa interesgarriak ikusi ziren, baina ez zen jende asko bildu Leitzako frontoira. Lehen jardunaldia izan da asteburu honetako eta bertan gizonzkoek bakarrik parte hartu dute. Guztira lau jardunaldi jokatu dira. I. GARCIA

Momentuko ordainketa eskura

Aldatu ezazu urrea euroen truke

Edozein eskaintza hobetzen dugu

TASAZIARIK ONENA !!

Rondilla kalea 25, behea

URREA
EROSTEN
DUT